

8. Ibilbidea  
DELIKA  
NERBIOIAREN  
HAITZEBAKIA




Pausuz pausu  
**Orduña**




Bizkaiko Foru  
Aldundia

Kultura Saila

# IBILBIDEA



## Ibilbidearen urratsak



### INTERES GUNEAK

- |   |                             |
|---|-----------------------------|
| <b>1</b> Aterpetxea.                            | <b>4</b> Kare-harkaitzak    |
| <b>2</b> Delika. Dorretxeak. Andra Mari eleiza. | <b>5</b> Uhalde landaretza. |
| <b>3</b> Nerbioiaren haitzebakia.               | <b>6</b> Pagadia.           |

## Zehazketa

«Teta Iturria» jolas-gunearen bidetik beheratzen gara «La Antigua»ko Santutegiraino. Errepidea gurutzatu eta berehala, Txarlazo mendiranzko oiharbidea hartzen dugu. Metalezko ate bat zeharkatuta, bidea laga eta ezkerretara bira egiten dugu, igotzen den beste oiharbide bat - gero zidorra bilakatuko dena - hartzearen.

Bidezidortxoak artedi nahaspilatuaren eta larreen zedetik oiharbide gurutze batetaraino garamatza. **Tertangara** jaisten den ezkerretako oiharbidea hartzen dugu, non **Zaldibartarren infantzoi-etxea** miretsi ahal izango dugun. Errepiderantz igotzen gara, gurutzatzen dugu eta ezkerretako oiharbidea, zeinek lehenengo **Paulera** eta gero **Zamarrora** eramango bait gaitu, hartzen dugu, azkenez **Delika** hatzematzearen. Hemen, dauden bi dorretxeak eta Andra Mari eleizaren erromanikoa mireritzi ahal izango dugu.

Trenbidearen biaduktora zuzentzen gara. Puntu horretan **Nerbioi Ibaiaren** ezkerretako uhertzarekin paraleloki eta ibai gora gidatuko gaituen oiharbidea hasten da. Uhertzetariko edozeinetatik edota ubide berberatik ibiltzea aukeratu ahal da. Pagadia mendialdeetatik eta ea ibaibideraino luzatzen da, ibaiaren uhertzetan haltzak, urretzak eta sahots anitzak agertzen direla.

Haitzebakia azken atalean estutu egiteak eta aldapa gogorragoa bihurtzek ormarean oinarrian kokatzen gaitu. So egin daitekeen ikuspegia, malakar zuten haunditasuna dela eta hunkigarri eta harrigarria da. Haitzebakiko behaldian eta itzulaldian izango ditugun ibilbidearen ikusketak zeharo desberdinak izango dira. Era honetan, ostera ere, Delika auzora heltzen gara eta aterperainoko itzulera Urduñarako errepidetik nahiz etorri garen lekutik egin dezakegu.



Nerbioiko ibaia, itsasmalda amilpetzen den tokia. ▶